

1. Iraila: Heldu da gure momentua

Ikasturte berri bat hasi dugu, eta lehen egunetik haur eta gazteek protagonista izan nahi dute. Etorri berriari harrera egin. Urteko helburuak finkatzen hasi. Sumatzen ditugun aldaketez ohartu. Denbora planifikatu, garrantzitsuena hautatu. Galdetu eta proposatu. Eta bai, batzuetan kexatu ere bai ados ez gaudenean. Eta ikasleak eurak protagonista diren ikastaro batekin amets egin.

Hileko motibazioa

Ongi etorri ikasturte berri honetara! Kaixo guztioi! Hemen gara berriro, bageneukan gogoia berriz elkartzeko, uda honetan izan ditugun gorabehera guztiak kontatzeko, zenbat hazi garen ikusteko... Itzuli gara, gure lagunekin berriro elkartzeko gogoia genuen, uda honetan egin dugun guztia kontatu nahi genuen. Edo, agian, zuen lehen eguna izango da hemen, talde zoragarri honetan.

Bide berri bati ekin diogu, ilusioz beterik, amets ez, erronkaz... Pozik gaude eta gozatzeko prest? Bide hau elkarrekin bizi nahi dugulako, besteengandik ikasiz, norberaren onena partekatuz, pertsona hobeak izanez, behar gaituztenei lagunduz, geure ingurura begiratzuz... Helduagoak gara eta geure burua zerbait hobetu nahi dugu, lagun hobeak izan nahi dugu. Guztion artean gauza on asko lortuko ditugu. Konta dezakegu zurekin?

Iraila 10/9

Azkenean hasi ditugu klaseak! ... Bagenuen gogoia zuek ikusteko, denok elkarrekin egoteko. Hemen elkarrekin ikusteko gogoia genuen. Ikasturte oso bat estreinatzeko. Egun hauetan azalduko digute irakasleek nola prestatu duten dena, baina garrantzitsuena egunero gutako bakoitzak jartzen duguna da.

Baliabideak:

Abestia

Hola, Dios, estoy aquí.

Gracias te doy por darme la vida.

Hazla nueva todos los días.

Buenos días, mi Señor

(este estribillo se puede extraer de

<https://www.youtube.com/watch?v=JNsualcx8o>)

Ongietorri otoitza

Lehendabizi besteengan pentsatzen dugunean,
Besteez arduratzen garenean,
Behar duenari laguntzen diogunean,
Geure alboan daukagunaz arduratzen garenean,
Dauzkagun ondasunak partekatzen ditugunean,
Arazoak dituztenei konpainia egiten diogunean,
Geure denbora zaharrenekin pasatzen dugunean,
Behartsuenen egoera hobetzeko lan egiten dugunean.

Orduan Jesusen erara bizi gara.

Asteko konpromisoa:

Hasi gara lehen pausoak ematen ikasturte honek prestatu digun biderantz. Eta batzen duten pertsonak izango gara. Ezin gaitezke geldi geratu, egiteko ezer gabe.

Hitz ematen dugu alaitasunez biziko garela, lan egingo dugula, saiatuko garela gauza berriak bilatzen, ikaskideez arduratzen, denok elkarrekin talde bat osatzen... horrela lortuko dugu hobetzea, eta geure eskuartean daukaguna hobeki egitea. Zurekin kontatzen dugu.

Iraila 16/9

Bide hau ezin dugu bakarrik egin, inguruan ditugun pertsona guztiekin egingo dugu. Bakarrik egiteak ez luke zentzurik izango eta ez litzateke hain dibertigarria. Lagun, irakasle, aita, ama, aiton amonak eta maite gaituzten guztiekin elkartuz, urrunago iritsiko gara. Guztion artean errazagoa izango da, elkarrekin joango gara, bata besteari lagun diezaiokegu nekatuago gaudenean, elkarren eskutik joango gara, bata bestegandik ikasiz.

Baliabideak:

Jarduera

Begiak ixteko eskatuko diegu ikasleei. Ondoren, arnasketa "behatzeko" eskatuko diegu: airea gure gorputzean nola sartzen eta irteten den. (30 segundo).

Gero, ipuin bat entzungo dutela esango diegu, eta oso adi egon behar dutela eta begiak itxita jarraitu.

IPUINA: Ezkutalekua

"Behin batean, Jainkoak gizakiekin ezkutaketan jolastea proposatu zuen. Bere aingeruei galdetu zien non ezkuta zitekeen. Lehenengo hitz egin mendi handi baten gailurrean ezkutatzeko proposatu zion, baina beste aingeru batek ohartarazi zion: "Ez, gogora dezagun indar handia dutela, eta agian norbaitek gailurrera igo eta aurkitu ahal izango luke". Beste aingeru batek uste zuen Jainkoa ezkutatzeko lekuri onena itsasoaren hondoa izan zitekeela. Beste batek, ordea, esan zuen laster iritsiko zirela, Jainkoak berak oso adimentsu sortu zuelako gizakia. Hirugarren aingeru baten ustez, urruneko izar bat izan zitekeen topatuko ez zuten leku seguruena, baina... gainerakoak ez zeuden ados; izan ere, gizakiak, beren sormenarekin kapaz ziren makina bat asmatu eta izarrera iristeko ere... Isiltasun luze baten ondoren, Jainkoa konturatu zen egiazki nahi zuena zera zela, gizakiek nahi zuten guztietan bera aurkitu ahal izatea, edonon zeudela ere; horregatik, gizakien bihotzean ezkutatu zen".

Azkenik, ikasleei begiak zabaltzeko eskatuko diegu eta eskua emateko alde banatan dauzkaten ikaskideei..

Azalduko diegu oso adi gaudenean posible dela Jainkoa nabaritzea geure bihotzean, geure barnean. Bai eta geure aldamenean daukagunen baitan ere.

Horregatik, isilik eta geure bihotzetik "egun on" esango diogu Jainkoari.

Irudia

<http://blogs.21rs.es/kamiano/files/2015/10/santos-fano.jpg>



Asteko konpromisoa:

Adi egotea lehenbiziko aste hauetan bakarrik edo triste sentitu daitezkeenei, bereziki gure klaseko ikaskideen artean. Pentsa dezagun zer egin dezakegun hobeto sentí daitezen.

Iraila 23/9

Gu guztiok gara oso garrantzitsuak. Gutako bakoitza gabe, gure ikastetxea, gure ikasgela gabe... ez litzateke gauza bera izango, bakoitzak leku horiek bereziak izatea eragiten dugu, bereziak garelako, bakarrik garelako gu geu eta daukagun gogoia laguntzeko, hobetzeko, partekatzeke, amets egiteko, hazteko.... Horregatik guztiagatik, gauden lekua leku hobea izatea eragiten dugu, eta gainerakoak hobeto sentiarazten ditugu. Denokin kontatu behar dugu.

Baliabideak:**Asanblada**

Tarte batean, nahi dugunok, gure etxean, familiarekin eta lagunekin garrantzitsuak garelako pentsatzen dugu, kirolean, eskolan. Gure esku dagoen edo egiteko eskatzen zaigun zer-baitetan pentsatzera gonbidatzen dugu, txikia izan arren.

Izan ditzakeen erantzukizunez edo norberaren ezaugarriez gain, norbaiti poza ematen diogun adieraztera gonbidatzea, zeini gustatzen zaion gurekin paseatzera edo jolas egi-tera irtetea...

Tarte bat partekatuko dugu, nahi dugunok, komentatzeko ea zergatik uste dugun ga-rrantzitsuak garelako geure etxean, geure senide eta lagunekin, kirolean, ikastetxean... Gau-zaren bat pentsatzeko eskatuko diegu, huskeria bat bada ere, gure menpe dagoena edo egin dezagun eskatzen digutena.

Izan ditzakegun erantzukizunez edo kualitateez gain, adierazi behar dugu ea norbaiti poza ematen diogun, ea nori gustatzen zaion gurekin paseatzea edo jolasean ibiltzea...

Oroitzapen berezi bat daukagu gaur goizean, elkarrizketan irten diren pertsona guztien, izen guztien gainean.

Jarduera

Baliabideak: ispilu bat kaxa baten barruan (bakoitzak bere burua ikusten duela)

Kaxaren barrura begiratu eta ikusten duguna gogoan gordeko dugu. Xehetasun guztiei erreparatuko diegu, huskeriak badirudite ere.

Gero, bakoitzak ikusi duena deskribatu behar die ikaskideei, zer den esan gabe, ea asmatzen duten!

Asteko konpromisoa:

Hurbileko norbaiti esatea garrantzitsua dela guretzat, eta/edo zergatik den garrantzitsua guretzat, zergatik gustatzen zaigun berarekin kontatzea. Egin daiteke, nahi izanez gero "entsegu" bat ere ikasgelan, bikoteen arteko dialogoak asmatuz eta zerbait esaterakoan gehien kostatzen zaiguna zer den pentsatuz.

2. Urria: Ez dugu amore ematen

Hileko motibazioa

Lehen zailtasunek sortzen dituzte lehen zalantzak ere. Gaztaroak zerbait badu da beldurrak beste era batera ikusten direla. Edo, beste gabe, ez direla ikusten. Horregatik, amore ematea ez da sartzen gazteen planetan. Bugobeko anaiak amaierara arte beren misioaren alde borrokatu ziren bezala, haien ereduari jarraitu behar diogu, zerbait ezin lortu dugula dirudienan amore ez emateko. Amore ez ematea nortaz fidatzen garen jakitea da.

Iraila 30/9 - Urria/10:

Gure garaia da. Guztion artean errazago izango da, inoiz ez gara bakarrik sentituko. Nekatuago gaudenean eta indarririk gabe sentitzen garenean, beti izango dugu berriro ibiltzen lagunduko digun esku bat; gure ondoan norbaitek estropezu egiten badu, altxatzen lagunduko diogu. Horrela, inor ez da atzean geratuko eta denok lortuko dugu bidea egin eta helmugara iristea. Elkarrekin hobeto ibiliko gara, denokin kontatzen dugu. Eta Jesusekin.

Baliabideak:

Bideoa – Abestia

Cuando estamos juntos (Abestia de la película *ToyStory 3*)

<https://www.youtube.com/watch?v=qHiQAqJxfaE>

Jarduera: Ingurura begiratzea

Hitz egin daiteke begiratzearen eta -denok- inguratzen gaituen munduaz arduratzearen garrantziaz.

Kutxa poltsa batean sartzeko esango diegu: kutxatila aterako ditugu eta gainerakoek norena den jakin behar dute. Garrantzitsua da haur batzuei parte hartzen uztea, horrela ikusi ahal izango baitugu nola antolatzen diren lagun taldeak, bai eta eduki ditzaketen oroimen eragozpenak ere.

Jarduera alda daiteke, beste objektu batzuk erabiliz.

Amaitzeko, interesgarria izango da bateratze lana egitea, arreta jartzeak eta lagun hurkoari laguntzen saiatzeak duten garrantziaz gogoeta egiteko... Arreta berezia jarriko dugu besteak nola aurkitzen diren detektatzeko.

Otoitza

Jesus Jauna, eskerrak ematen dizkizut.

Hasi berria den egun honegatik.

Egun guztian nirekin egon zaitezten eskatzen dizut,
Eta lagun diezadazula denak maitatzen,
Zuk maite gaituzun bezala. Amen

Asteko konpromisoa:

Gai izatea egunero ikastetxera joatean edo itzultzean ikusten ditugun hainbat laguni buruz zerbait esateko. Xehetasun jakin batean erreparatuko dugu ikaskideekin komentatzeko.

Urria 7/10

Ia hilabete daramagu elkarrekin, eta seguru lagun berriak egin ditugula. Jadanik abiatu gara ikas-turte honetan eta dagoeneko heldu dira ikastetxean partekatu ohi ditugun jarduerak. Badakigu urtero hasteak, bere berrikuntzekin hasteak, aldaketak dakarzkigula, eta egiten diegun harreraren arabera, gehiago edo gutxiago gustatuko zaizkigula, Zer moduz zabiltza hasiera honetan?

Baliabideak:

Jarduera: "Hitz erlazionatuak"

Dinamika hau egokia da barnetasuna eta enpatia lantzeko. Irakasleak hitz bat ozenki esaten du: maitasuna (lagunak, ikastetxea, maitea, besarkadak, musuak...). Eta denbora pixka bat ematen du (10-15 segundo). Haur bakoitzak esan den hitzak iradokitzen dion beste hitz bat pentsatu behar du.

Jarduera hau egin daiteke emozioekin ere: ikasleak esan behar du zein momentutan sentitu duen berak emozio hori bera edo antzekoa, edo zein momentutan sentitu litekeen bat horrela...



Irudia

<http://blogs.21rs.es/kamiano/files/2013/08/jesus-mi-capitan-color.jpg>

Otoitza

Eskerrik asko, Jauna, maite gaituzten pertsonengatik.
Jesus, Adiskidea, nire bihotzak abestu eta eskerrak ematen dizkizu dauzkagun gauza miresgarri guztiengatik eta egin dezakedan guztiagatik, bizitzea gustatzen zaidalako eta egunero hazten laguntzen didalako.

Eskerrik asko, Jauna, maite gaituzten pertsonengatik.
Badakit denok maite gaituzula.
Nik ere badauzkat maite ditudan eta ahal dudanean laguntzen diedan pertsonak.
Oso pozik nago aldean zauzkadalako.

Eskerrik asko, Jauna, maite gaituzten pertsonengatik.
Jesus, hazten garen neurrian, ohartzen gara haur guztiek ez dauzkatela guk adina gauza.
Horregatik eskatzen dizugu gizon eta emakumeok eskuzabalago izan gaitezela behartsuekin.
Horrela mundu guztiari laguntzen dioten zure eskuak izango gara.

Asteko konpromisoa:

Etxekoei, familiartekoei galdetzea ea zer moduz doakien ikasturtearen hasieran. Nola ari diren bizitzen interesatuko gara (adibideak eman txikientzat).

Urria 14/10

Beste era batera begiratzea, beste errealitate batzuk aurkitzeko gai izatea eta geureari buruz hausnarketa egitea proposatzen dugu. Geure ikaskide guztiekin kontatuko dugu, elkarrekin bizitzaz beteriko mundu baterantz joateko, eredutzat estilo marista harturik: apal, xume eta umiltasunez ikusiko dugu zerk hurbiltzen gaituen besteengana, eta zer gauza partekatzen ditugun elkarrekin hazteko.

Baliabideak:

Isilik: nork bere barnera begiratzea.

Begiak ixteko eskatuko diegu ikasleei. Ondoren, arnasketa "behatzeko" esango diegu: airea gure gorputzean nola sartzen eta irteten den. (30 segundo).

Ondoren, ipuin bat entzungo dutela eta oso adi eta begiak itxita jarraitu behar dutela esango diegu.

IPUINA: Ispiluen Jauregia.

Bazen behin batean kale txakur bat. Bazterrak miatzea eta batera eta bestera ibiltzea gustatzen zitzaion. Beti izan zen alderrai, eta asko gozatzen zuen bere bizimoduarekin. Behin, jauregi bat aurkitu zuen horma guztiak ispiluz estaliak zituena. Txakurra geletako batean sartu zen korrika. Eta, berehala, ikusi zuen txakur asko korrika zetozeala berarengana. Izuturik, beste aldera itzuli eta ihes egiten saiatu zen baina ikusi zuen alde hartatik ere konta ezin ahala txakur ageri zirela. Zaunka hasi zitzaion, eta, denek batera berari zaunkaz erantzun zioten. Beldurrak airean, jauregitik alde egin zuen eta ez zen harrezkero sekula leku hartara hurbildu. Handik denboraldi batera, adiskide batekin topo egin zuen eta jauregian gertatutakoa kontatu zion. Adiskide horrek esan zionez, berari guztiz kontrakoa gertatu zitzaion: oso pozik zegoen egun batean jauregi hartan sartu omen zen irribarrez. Txakur guztiek ere irribarre egin omen zioten. Hori ikusirik, lasaiturik, berak irribarre gehiago, eta txakurrek ere berdin, denek irribarre gehiago eta gehiago...

Amaitzeko, ikasleei adieraziko diegu begiak ireki eta alboan dituzten lankideei eskua eman diezaietela.

Azalduko diegu, geure bizitzan ere, guk besteei ematen diegun gauza bera jasoko dugula geuk besteengandik..

Horregatik, isilik eta bihotzetik, pentsa dezagun nola jokatu nahi dugun geuk besteekin.

Jarduera

Mundu zabaleko neskato eta mutikoak eta beren eskolak aztertuko ditugu. Neskato eta mutiko horiengan eta beren eskoletan erreparatuko dugu: gureak bezalakoak al dira? Zertan dira berdinak? Zertan desberdinak? Ikusten ditugun errealitateak hobetzeko egin ditzakegun gauzetan pentsatuko. Era berean pentsatuko dugu geure errealitateko zer gauza alda ditzakegun, gauza gutxiagorekin zorientsuago izatea lortzeko, Mariaren estilo apal eta hurbilekoan inspiratuz.

Baliabideak: mutiko eta neskatoen eta munduko eskola desberdinen gaur egungo irudiak.

Asteko konpromisoa:

Laguntzen saiatuko gara lan txiko 'extra' bat eginez (normalean egiten ez ditugun horietako bat, etxean, eskolan, aiton amonekin... Zertaz ardura zintezke? Nola lagundu zenezake?

Urria 21/10

Oraindik ere, munduan haur asko daude guretzat normalak ditzen gauzak ezinezko gertatzen zizkienak: egunero jatea, gauero lo egitea, hotz egiten duenean berotzea, etxe batean bizitzea, eskolara joatea, lagunekin jolastea, inguruan bakea izatea...

Gauzak ondo egiteak duen onena da besteentzat lagungarri gertatzen direla edo zorientsu egiten dituela. Hori askotan lankidetzan egin daiteke eta denok ateratzen gara irabazian. Denok dakigu zeinen garrantzitsua dugun desberdinak izatea. Eta denon onerako izango den zerbait lankidetzan egitea erabakitzen dugunean, orduan talde bat baino zerbait gehiago gara: ekipo bat gara, familia bat!

Baliabideak:

IPUINA - Bideoa: talde lana

<https://www.youtube.com/watch?v=7Ou5MfCRO5Y>

Jarduera

Haur bakoitzak momentu bat pentsatu behar du, benetakoa edo asmatua, bertan alaitasuna sentitu edo partekatu dueneko. Gero irudi bat egin behar du. Baina ez ohiko eran, baizik mahaiaren edo jarlekuaren azpian, edo kolore gutxiarekin, edo denbora guztia zutik...

Ondoren, elkarrizketa eta ideia trukaketa bat antolatuko da. Ea ohiko erraztasunak izan dituzten ala gehiago kostatu zaien era horretan marraztea, ea nekagarria gertatu zaien... Ulertarazi behar diegu denok ez dauzkagula aukera eta erosotasun berberak, imajina ditzatela egunero eta egun guztian horrela lan egin behar dutenak; ahalegindu beharra daukagula denontzako lan baldintza onak lortzen.

Irudia

<https://amarguramalaga.es/wp-content/uploads/2019/05/colabora.jpg>



Asteko konpromisoa:

Aste honetan zerbaitengatik kexatzera goazenean, edozer dela ere, une batez pentsatuko dugu, eta ikusi behar dugu ea gai garen isilik geratzeko egoera horietakoren baten aurrean: janaria, arropa, jostailua, telebista denbora...

Urria 28/10

Badakizue nor izan ziren FERNANDO, JULIO, MIGUEL ANGEL eta SERVANDO? Lau anaia marista izan ziren, behartsuenengana joatea erabaki zutenak. Kolegioan, urtero astebete ematen dugu haiek gogoratzeko eta, haiek bezala, beren bizitza gehien behar dutenei eskaintzen dieten marista guztiak eta besteei laguntzera joaten direnak. Eredu dira denontzat. Erosoago bizi zitezkeen arren, nahiago izan zuten hara joan eta beren energia eta ilusio guztia aprobetxatu egoera larrian zeuden pertsonen laguntzeko. Dena eman zuten, eta gaur egun oraindik gogoratzen dugu zer egin zuten eta ikasten jarraitzen dugu erakutsi zuten eskuzabaltasun eta familia zentzutik.

Baliabideak

IPUINA: ume aberatsa

Behin batean bazen haur azkar eta aberats bat, ia denetik zeukana; horregatik, gauzarik arraroenak eta bitxiak bakarrik eskatzen zituen. Horixe gertatu zitzaion ispilu zahar batekin, eta gurasoak konbentzitu zituen agure misterioitsu bati eros ziezaioten. Etxera

iritsi eta ispiluan islatu zenean, aurpegia oso triste ikusten zuela sentitu zuen. Ispilua-
ren aurrean irribarreak eta imintzioak egiten hasi zen, baina haren islak triste jarraitzen
zuen. Harrituta, goxokiak erostera joan zen eta oso pozik itzuli zen ispiluan begiratzera,
baina haren islak triste jarraitzen zuen. Era guztietako jostailu eta tramankuluak eskura-
tu zituen baina halere ispiluan triste agertzen zen beti. Horregatik, etsita, bazter batean
botata utzi zuen ispilua. "A zer ispilu ziztrina! Funtzionaten ez duen ispilu bat ikusten
dudan lehen aldia da."

Arratsalde hartan bertan kalera irten zen jolasera eta jostailu batzuk erostera; baina
parkera zihoala, haur txiki bat ikusi zuen negar batean, erabat triste. Egoera hartan eta
bakarrik zegoela ikustean, berarengana hurbildu eta ea zer gertatzen zitzaion galdetu
zion. Aita eta ama galdu zituela erantzun zion; horregatik, haien bila abiatu ziren. Hau-
rrak negar zotinka jarraitzen zuenez, besteak bere diruak gastatu zituen harentzat goxo-
ki batzuk erosten. Azkenean, eta asko ibili ondoren, haurraren gurasoak aurkitu zituzten,
haiek ere guztiz arduratuta baitzebiltzan euren semetxoaren bila.

Haurrari agur esan ondoren, ume aberatsa parkerantz abiatu zen, baina oso berandu zela
oharturik, etxera itzultzea erabaki zuen, jolasean ibili gabe, jostailu berririk gabe eta di-
rurik gabe. Etxean, bere gelara iristean, baztertuta utzi zuen ispilutik distira bat zetorrela
iruditu zitzaion. Eta han begiratzean, bere burua ikusi zuen pozarren distiratsu, gela guz-
tia argitzen zuela. Orduan ulertu zuen ispilu haren misterioa, bere jabearen alaitasuna
islatzen zuen bakarra. Era egia zela konturatu zen, eta benetan zoriontsu sentitzen zela
haur hari lagundu izanagatik.

Eta handik aurrera, goizero, ispiluan begiratzen zuen bakoitzean, distira berezi hura ikus-
ten ez bazuen, bazekien zer egin behar zuen hura berreskuratzeko.

Baliabideak

<https://champagnat.org/es/ser-marista-2/santos-maristas-2/martires-de-bugobe-31-Urria-1996/>



Asteko konpromisoa:

Jolastokian erreparatuko dugu, edo kirol orduetan, edo arratsaldean eskolara bazatoz. Bali-
teke norbait egotea berari galdetzeko ea zurekin, zuekin, jolastu nahi duen, askotan bakarrik
egoten delako.

3. Azaroa: Geure etorkizuna eraikitzen

Hileko motibazioa

Parte hartzeko eskubideak eskatzen digu haurrak edo nerabeak bere iritzia osatzeko moduan egon behar duela bermatzea, bai eta eragiten dieten egoerei buruzko iritzia askatasunez adierazteko eskubidea ere, haurraren iritzia kontuan hartuta, berauen adinaren eta heldutasunaren arabera. Parte hartzeko eskubideak berekin dakar gazteek beren etorkizuna eraikitzeko hitza eta botoa izateko duten eskubidea.

Bideoa 4/11

Oso garrantzitsua dugu geure burua ondo ezagutzea, besteei gure pertsonak daukan onena eman ahal izateko.

Beren burua maite duten pertsonak atseginak, begirunetsuak, maitagarriak, independenteak dira, beti arduratzen dira beren hazkunde pertsonalaz, osasunaz, prestakuntzaz eta egiten duten guztian beren onena emateaz.

Baliabideak:

1. Erreparatu irudi hauetan eta komenta ezazu irakaslearekin zer iradokitzen dizuten:



2. Zirkulu zentrokodeen dinamika

Klasean edo espazio zabal batean garatuko da zirkulu zentrokodeen dinamika. Haurrak erlojuaren orratzen noranzkoan biraka joango dira eta ikaskideekin topo egingo dute.

Haur Hezkuntzako ikasleek ikaskide bakoitzari zer ikusten duten esan beharko diote. Lehen Hezkuntzarako, ikasle bakoitzak arkatx bat eta koaderno bat izango ditu. Bertan, bere izena letra larriz idatzi beharko du, eta ikasle bakoitzak izen horren azpian daukan kalitate bat idatziko dio

3. Bideo honetan nork bere burua ezagutzeak eta baloratzeak daukan garrantziaz jabetuko dira. Talde txikitan zerrenda bat egingo dute bakoitzaren ezaugarriak aipatuz eta gainerako taldeekin partekatuko dituzte.

<https://www.youtube.com/watch?v=KkCIIQyevjo>

Asteko konpromisoa:

Bakoitzak ikaskideei esatea zirkulu zentrokodeen dinamikan aipatu ez diguten kalitate bat

Azaroa 11/11**Aste honetan... NIRE IRITZIAREN BALIOA**

Egunero pertsona askorekin hitz egiten dugu eta gauza asko kontatzen ditugu. Zer gertatu zaidan, zer jan dudan, zer erosi didaten, zertan jolastu naizen... Baina gauza horietaz bakarrik hitz egiten dugu ala kontatzen ditugu gauza garrantzitsuagoak ere? Adibidez, nola sentitzen naizen gaur, zer egin nahi dudan gaur ondo, zergatik sentitzen naizen gaizki gaur?, sentitzen ditudan emozioez hitz egitea... Gainera, garrantzitsua da errespetuz eta maitasunez hitz egitea. Entzuten digun pertsonak gure errespetu eta maitasuna merezi ditu eta horixe adierazi behar dugu geure hitz egiteko moduarekin.

Baliabideak:**1. <https://www.youtube.com/watch?v=5rjYnYcNxjg>**

Aintzat hartzen al da etxean denen iritzia? Errespetatzen al duzu zuk zeure senideen iritzia? Aintzat hartzen al dute zure iritzia?

2. Abestia

<https://www.youtube.com/watch?v=cg6DawbmPCs>

Hitz magikoek eragiten dute besteek guri errespetuz eta adi entzutea. Besteek edukioz, begirunez eta maitekiro hiru egiten badiegu, gure iritzia betiere kontuan hartua izango da.

3. Jokoa: http://www.waece.org/clubninyos/Jardueras/nos_relacionamos/actividades_nos_relacionamos8.htm**(Jardueraren garapena)**

Mutiko batek magoarena egiten du, eta gainerako haurrek magoaren nahiak bete behar dituzte, baldin eta "mesedez" eta "eskerrik asko" hitz magikoak esaten baditu.

Haurrak libre mugitzen dira gelako espazioan, musikaren edo irakasleak txaloka edo tresnaren batekin markatzen duen erritmora

Musika (edo txaloak) isiltzen direnean, denak estatua bihurtzen dira.

Magoak, makila batekin, estatuak ukitzen ditu eta "mesedez" eskatzen die nahi duen animalia edo objektu bihurtzeko. Horretarako, ez zaio ahaztu behar hitz magikoak esatea

Estatuek magoaren desioa behar bezala bete ondoren, hark eskerrak ematen dizkie eta haurrak, berrito, libreki mugitzen dira klasean, markatutako erritmoan. Orduan, magoak makilatxoak ematen dio haurretako bati, hain zuzen, bere desioa ongien bete duenari, eta aurrera jarraitzen da jokoarekin..

Baldin magoak hitz magikoak behar bezala esaten ez baditu, mago estatusa galtzen du.

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, hitz magiko bat erabiliz esango dugu esaten dugun guztia. Mesedez, ahal dut? Eskerrik asko, egun on, barkatu.

Azaroa 18/11

Aste honetan ESKUBIDEAK DAUZKAGU

Haurren eskubideen eguna ospatzen dugu aste honetan. Aste honetan landuko dugu, zein garrantzitsua den errespetuz eta maitasunez betetako giro batean jolastea, ikastea eta haztea. Haur bakoitza mundua aldatzeko gai den argia da. Gutako bakoitza bakarra eta errepika ezina da, eta, horrexegatik, besteen alde aparteko gauzak egiten jardun behar dugu.

Baliabideak:

- 1. Eskulana:** haurren eskubideei buruz, ikasgelan egiteko eta etxera eramateko.

<https://images.app.goo.gl/UlimBys7TzX2yRmi6>



<https://images.app.goo.gl/7EQvpMoorpfdH3Mu8>

2. IPUINA

Neguko arratsalde lasai batean, bi haur ibai izoztu baten gainean jolasean zebiltzan. Bat-batean, izotza hautsi eta bietako bat uretara erori zen.

Azalaren azpiko korrante hotza oso bizia zen, eta ezinbestekoa gertatu zen mutiko errukarria urak eramatea izotz geruza lodiaren azpian harrapatuta.

Bien bitartean, laguna beldurrez beteta zegoen, eta indar guztiekin oihu egin zuen laguntza eske. Hala ere, bakarrik zeuden han, eta bazekien berak bakarrik moldatu beharko zuela laguna salbatu nahi bazuen.

Horretarako, han inguruan aurkitu zuen harri handi bat hartu eta izotz geruzaren kontra botatzen hasi zen, behin eta berriro, ea haustea lortzen zuen. Horrela jardun zuen bere helburua lortu zuen arte. Gainazal hotza puskatu ahal izan zuenean, eskua luzatu zuen laguna erreskatatzeko, eta horrela salbatu zuen.

Minutu batzuk geroago herrian ziren bueltan eta gertatu zitzaizenaren berri eman zuten. Denak ere oso harriturik zeuden eta ezin zuten sinetsi umeek kontatu zutena egia izan zitekeenik.

– Ibaiko izotza oso lodia da, ezinezkoa ume batek hautsi ahal izatea –esan zuen batek.

– Nola lor lezake adin horretako mutiko batek laguntzarik gabe? –galdetu zuen beste batek.

Orduan, agure bat zutitu zen, eta oso lasai esan zuen guztien aurrean:

– Nik badakit nola erreskatatu ahal izan zuen ume horrek bere laguna...

Denak isilik geratu ziren agurearen sententzia entzuteko.

– Mutikoak bere laguna salbatu zuen, inguruan inor ez zegoelako ezinezkoa zela esateko.

3. <https://www.youtube.com/watch?v=GiFA9FArD9Q>

Adierazpen askatasunaz eta besteen iritziei zor zaien errespetuaz hitz egingo dugu.

Asteko konpromisoa:

Eskulana etxera eramatea eta leku ageri batean esekitzea (edo eranstea).

Azaroa 25/11

Entzutea....ZURE IRITZIAK KONTATZEN DU

Guztioi gustatzen zaigu besteek guri entzutea. Denok ditugu gauza asko besteei kontatzeko: nola sentitzen naizen, zer gertatu zaidan, zer jostailu ditudan... Baina besteek, haurrak zein helduak, guri entzuteko, aurrena geuk ikasi behar dugu besteei entzuten.

Horregatik, aste honetan, arreta berezia jarriko diogu gainerakoek guri kontatu behar digutenari: txarra edo ona izan, dibertigarria edo aspergarria, tristeia edo alaia.

Horrela bakarrik lortuko dugu besteen errespetua, guri ere entzun ahal izan diezaguten.


Baliabideak:

1. Erreparatu Irudiarri. Ikus dezagun zer jarrera eduki behar dugun norbait zerbait kontatzen ari zaigunean.

Begiak zabal-zabalik eta hizketan ari den pertsonari begira, garrantzitsua eta onartua senti dadin., ui

kusi zer jarrera izan behar ditugun norbaitek zerbait kontatzen digunean.

giak oso irekita eta zerbait kontatzen ari den pertsonari begira, garrantzitsua eta oso maitea senti dadin. Belarriak ere adi, kontatzen ari den eta berarentzat hain garrantzitsua den horri. Eta ahoa irribarretsu, pozik gaudela adieraziz, bere gauzak kontatzen dizkigun lagun bat daukagulako..



2. Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=fSz4Va4a6Og>

Bideoa ikusi eta elkarrikketa egingo dugu bertan esaten denari buruz. Isildu gabe hitz egiten zuen umea.

3. Enpatía. Arrantzalea, txakurra eta txoria.

<https://www.youtube.com/watch?v=5edfzhwdzUk>

Asteko konpromisoa:

Aste honetan besteei entzuteko konpromisoa hartzen dugu: aita eta amari, senideei, aiton amonei etxean laguntzeko eskatzen didatenean, irakasleei eta ikaskideei beren gauzak kontatzen dizkigutenean... BAINA BATEZ ERE GEURE IKASKIDEEI EGUNERO GALDETUKO DIEGU: ZER MODUZ ZAUDETE? Eta entzun egingo diegu.

4. Abendua: Prest zuri harrera egiteko

Hileko motibazioa

Abendua, itxaroteko eta prest egoteko aldia. Haur baten etorrera ez da inprobisatzen den gauza, eta are gehiago Haur horrek argi eta ozenki esaten badigu: "Kontatu nirekin". Geure etxean eta geure bizitzan lekua egin behar diogu. Pozari gutaz jabe dadin utzi behar diogu eta poza hori ingurukoei kutsatu behar diegu. Eta prest egon behar dugu, Berri Ona iristen denean, jaio berriari ongietorria egitera joateko. Marcelinok eskatu zigun bezala Haurtxoari ongietorria egiten lehenak izan nahi dugu.

Abendua 2/12

Abendua da Jesusen jaiotzaren festa handirako prestatzeko Elizak proposatzen digun denbora. Gu guztionganako maitasunez jaiotzen da Jainkoa haurtxo bihurturik. Eta maitasun horrek ez du ez hasierarik ez amaierarik. Betidanik eta betirako da. Zoragarria benetan

Baliabideak:

- **Bideoa.** Abendu Denbora Liturgikoaren azalpena
https://www.youtube.com/watch?v=v4CgU0tn_fl&ab_channel=OMPEM%C3%A9xico
- **Juego:** Belengo pertsonajeekin bikoteak osatzea
<https://wordwall.net/es/resource/8817547/memory/navidad-y-adviento-1%C2%BA-ciclo-memory>
- **Abestia** "Prepárate en Adviento"(Presta zaitez Abenduan)
https://www.youtube.com/watch?v=hrublhAu8ZQ&ab_channel=AnaLago

«Una mujer que vivía en Nazaret,
ella se llama María y su marido el buen José.

Dios la eligió y envió al ángel Gabriel
para darle la noticia de que Madre iba a ser:
AL HIJO DE DIOS VAS A DAR A LUZ
Y SE LLAMARÁ JESÚS.


Prepárate, prepárate
con ilusión, con ilusión
para abrir a Jesús las puertas de tu corazón.

Prepárate, prepárate
que llega ya, que llega ya
es el Adviento que va antes de la Navidad.»

- **Abendua** Mariaren eskuetan": Maria itxaropen oneko egoeran dago, bere sabelean baitarama Jesus, gure ITXAROPENA, ume egiten den MAITASUNA. Abendu honetan, gure Ama Maria lagun dugula, manta bat egingo dugu jaiotzear dagoen haurtxoarentzat. Artilezko mantatxo bat izango da, astero kolorez apaintzen joango garena, Jainkoaren hitza arretaz entzunez eta babestu eta transforma gaitzan utziz. Ikasgelako dekorazio gisa, saski edo sehaska bat ipin dezakegu eta bertan artilezko lau matazak eta Ebanjelioa.

<https://puntadasdeadviento.blogspot.com/2022/11/adviento-2022-de-fano.html>

(Castellano, Catalán, Gallego, Euskera)



Adviento
En manos de María nos entrelazamos para acoger a Jesús

María está en estado de buena esperanza, porque ella está esperando a Jesús nuestra ESPERANZA, el AMOR que se encarna. Este adviento acompañados de mamá María vamos a tejer un anillo para el niño que va a nacer. Será una manilla de lana que iremos tejendo cada domingo, escuchando atentamente la palabra de Dios y dejando que nos abra y transforme.

Tu palabra nos da VIDA


Cada semana iremos añadiendo una nueva madeja de lana

1º Domingo Mt 24, 37-44	Despiértate Despiértate, no dejes dormido tu vida interior. Dios habla en ti, séntelo como María en sus entrañas.
2º Domingo Mt 3, 1-2	Conviértete Quítate muchos hábitos, disculpas, excusas, y sírvete, ama así en tu camino.
3º Domingo Mt 1, 2-11	Alégrate Estamos cerca de ver a Jesús, tengamos ESPERANZA será una gran fiesta.
4º Domingo Lc 1, 18-24	Acoge Acoge la voluntad de Dios en ti como hizo José, abre tus brazos para acoger abrazando.

En Navidad recordamos a Jesús en la manilla y en el calor de nuestra esperanza.

Feliz Navidad

Una idea bonita
Hacer una red o una manilla con cuatro madejas de lana y el Evangelio. Cada domingo se irá entrelazando una nueva madeja con sus colores. Al domingo siguiente vamos tejiendo la red y dando a luz al niño que nace para que continúe la vida. Juntos vamos haciendo la manilla que al día de Navidad usaremos para abrigar al niño Jesús recién nacido.



Asteko konpromisoa:

1º astea: PRESTA ZAITEZ

Lagunen bat etortzeko denean, etxea txukuntzen dugu dena garbi eta apain agon dadin. Orain gure lagun Jesusen etorrera prestatzen ari garen honetan, geure burua barrutik "txukundu" behar dugu. Horretarako, astean zehar gauza hauetako batzuk egiteko konpromisoa har dezakegu: besteei laguntzea, ez haserretzea, bakarrik jantzea, laguntzarik gabe gosaltzea, aiton amonekin ondo portatzea, protestatu gabe oheratzea, garbitzeko jantziak arropa zikinaren saskira eramatea, mahaia jartzea, otorduetan mahaitik ez altxatzea, eta abar.

Abendua 9/12

Abenduaren 8an, igandea, Sortzez Garbiaren eguna ospatzen da. Abenduko garai honetan, eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari Mariagatik, Nazareteko emakume apal hura, Onarpenaren eta Itxaropenaren Ama. Berak erakutsiko digu inork baino hobeto nola prestatu geure bihotza Jesusi harrera egiteko.

Baliabideak:

Ebanjelioa San Lukasen arabera 1, 26-38:

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzeman zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: -Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin.

Hitz haiek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Aingeruak esan zion: -Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Orduan, esan zuen Mariak:

-Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekik zuk esan bezala.

Eta aingeruak utzi egin zuen.

Abestia. Anunciación - Valivan:

https://www.youtube.com/watch?v=UZYzvpK2nLo&ab_channel=Valivan

Abestia Te regalo una sonrisa https://youtu.be/zkZg_R7KyYo

Te regalo una sonrisa con todo mi corazón.
Hay un lugar donde los sueños se hacen realidad.
Donde grandes y pequeños desean un mundo de paz.
Y no olvides tu carta a los Reyes Magos,
y dile a papá Noel que se venga también,
nadie puede faltar.
Que ya llegó la Navidad.

Egizu Aita Noel bat <https://www.cokitos.com/crear-un-papa-noel-de-nieve/play/>

Asteko konpromisoa:

2º Astea: OPARI TXIKIAK

Aste honetan, ekintza onak egitea da helburua, hala nola behar dutenei laguntzea edo besteen alde zerbait egitea. Irribarre bat, "maite zaitut" bat edo "eskerrik asko" bat bezalako xehetasun errazak izango ditugu eskolako lagunei zuzenduak edo geure familiari edo triste dagoela eta behar duela ikusten dugunari.

Abendua 16/12

Jesusen Jaiotzaren ospakizunera gonbidatuta gaudenez, halako ilusioz espero dugun Jaiotza iristen denerako prestatu behar dugu. Oso guapo jarriko gara benetan ospakizun handia delako. Baina ez dugu ahaztu behar garrantzitsuena: distira berezi batekin argi egitea. Horretarako Eguberriko IZARRAK argituko digu bidea, egin ditzakegun gauza onak aurkitzeko.

Baliabideak:

IPUINA "IZAR BAT AURKITU ZUEN NESKATOA"

Bazen behin neskato bat, Sofia izenekoa, ametsetako herrialdean bizi zena. Beltzarara zen eta ilea azabaxe kolorekoa zeukan. Haren aurpegiak aingerutxo batena zirudien, beti alai eta irribarretsu. Egunero ikusten zuten parkean gainerako hurrekin jolasean. Baina hura beti ametsetan zegoen: iritsiko ote da egun bat pertsona guztiak senide bezala biziko garena? Mutiko eta neskato guztiok partekatu ahal izango al ditugu inoiz geure gauzak ezer ez daukatenekin? Posible izango ote da egunen batean herrien eta nazioen arteko gerra eta gorrotoak amaitzea?...

Behin batean, aitonarekin mendian paseatzen zebilela, gauza distiratsu bat ikusi zuen, hartzeko hurbildu zen eta oooooo! Hura ustekabea! IZAR BAT!!!

– Aitona! Begira, begira! IZAR bat aurkitu dut!

– Oso polita da, Sofia. Zaindu ezazu ondo, ez galtzeko.

Eta Sofiak kontu handiz gorde zuen bere berokiaren poltsikoan; eta paseatzen jarraitu zuten naturak eskaintzen zien guztiaz gozatuz. Etxera iristean, Sofiak, gordeta zeukan kaxa txiki polit batean ipini zuen bere izarra, mesanotxearen gainean. Eskolako lanak egin zituen, beti bezala, eta afalondoan, gurasoei eta neba zaharrenari musu bana eman ondoren, lotara joan zen bere gelara. Oheratu aurretik, izarra zeukan kaxa zabaltzeko eta izarrak honela esan zion belarrira:

– Ez al litzateke ederra, Sofia, amets guztiak egia bihurtuko balira? Badakizu EGUBERRI hurbiltzen ari dela. Zergatik ez zara ZEU hasten bihar bertan amets horiek egia bihurtzen?

Izarrak gainera esan zion, gutako bakoitzak MAITATZEN, BARKATZEN ETA PARTEKATZEN ikasten badugu, Jesus egunero jaioko dela gure bihotzean, eta horrela beti izango dela EGUBERRI. Hurrengo goizean Sofiak izarrak esandakoa kontatu zion amari, eta egun hartatik aurrera ametsak egia bihurtzen hasi ziren. Berak benetan ulertu zuelako zer esan nahi zuen MAITATTZEAK, BARKATZEAK ETA PARTEKATZEAK.

Abestia “Dios nace en tu corazón” (Jainkoa zure bihotzean jaiotzen da)

<https://soundcloud.com/user-106799110/dios-nace-en-tu-corazon>

El Niño Dios va a nacer en Belén,
El Niño Dios nacerá en ti también. (BIS)
Entre el amor, entre la paz, nacerá en tu corazón.
El Niño Dios va a nacer en Belén,
El Niño Dios nacerá en ti también. (BIS)
En tu ciudad, en tu hogar, nacerá en tu corazón.
El Niño Dios va a nacer en Belén,
El Niño Dios nacerá en ti también. (BIS)
En el cole y en tu clase, nacerá en tu corazón.
El Niño Dios va a nacer en Belén,
El Niño Dios nacerá en ti también. (BIS)

Gabonetako igarkizunak: <https://youtu.be/7VypFdhBOOs>

Ebanjelioa San Lukasen arabera 2, 8-20: Aingeruak eta artzainak

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen. Jau-naren aingerua aurkeztu zitzairen eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek beldurturik gelditu ziren, eta aingeruak esan zien: «Ez beldurtu! Hara, berri on pozgarria dakarkizuet, bai zuentzat, bai herri osoarentzat ere: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna, jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hona seinalea: jaioberri bat aurkituko duzue oihale-tan bildua eta askan etzana».

Asteko konpromisoa:

3º Astea: POZIK BADATORRELAKO

Oso gutxi falta da Eguberrirako, Jesusen etorrerarako. ALAITASUNA eta ILUSIOA partekatzea besteei laguntzeko moduak dira. Konpromisoa har dezaket... aita eta amarekin ez haserretzeko, aitona amonekin maitekorra izateko, egunero aurkitzen ditudan pertsonekin ongi-hezia izateko, atsegina izanez, eskerrak emanez, goizero egun on esanez... Gabonak guk bezala ospatzeko aukerarik ez duten beste pertsona batzuegan ere pentsatu behar dugu, edo gaixo daudelako edo zer janik ez dutelako... eta gogoeta hau egin behar dugu: nola lagun diezaiekegu?

5. Urtarrila: Geure gain hartzea daukagun erantzukizuna

Hileko motibazioa

Urte berria asmo onez beteta dator, baina ez hori ez da nahikoa. Asmoak egitate bihurtzeko erantzukizuna hartu behar da. Eta asmo pertsonalekin batera, hil honek bakearen alde borrokatzeko beharra gogorarazten digu. Bakea, denon arteko benetako berdintasuna lortzeko bide bakarra, guztion etorkizuna segurtatzeko bide bakarra. Bakearen alde lan egitea norberaren esku dago, erantzukizun hori onartu beharra daukagu, eta horregatik ausartzen gara elkarrekin esatera: "Kontatu nirekin".

Urtarrila 7/1

Aste honetan borroka saihesteaz jardungo dugu. Batzuetan, pertsonak ia konturatu gabe sartzen gara arazoetan, eta gero ez dakigu nola atera haietatik. Gatazka bat prebenitzeak ez du zerikusirik gatazkatik ihes egitearekin. Erabat alderantziz. Gatazka bat prebenitzeak gatazkari aurre egiteko neurriak hartzea esan nahi du, erronkatzat hartuta, eta ongi funtzionatzen ez duena aldatzeko aukera aprobetxatuz, betiere liskar desatseginak eta borroka saihesteko.

Baliabideak:

IPUINA: UKENDU IKUSEZIN XELEBREA

Mario ez zen mutiko aldrebesa, baina hain urduria eta erretxina zenez, beti gainerako haurrei egurra ematen ibiltzen baitzen. Laurak, bere maistrak, horregatik, osaba Perikori laguntza eskatzea erabaki zuen. Osaba horrek, aztia zen eta zertxobait burutik nahastua, flasko huts bat eman zion.

– Ez da ikusten, ezta usaintzen ere. Eman mutikoari eskuetan, edozein pomada ematen den bezala, eta berehalaxe utziko dio ukabilkadak emateari.

Maistra etxera itzuli zen, ia konbentziturik osaba Perikok adarra jo ziola, baina badaezpada Marioren eskuak igurtzi zituen ukendu ikusezin harekin. Gero itxaroten geratu zen, ea zer gertatzen zen, baina ez zen ezer gertatu, eta apur bat lotsatuta sentitu zen osaba zoro hark era horretan engainatu zuelako.

Mario jolasera irten zen, baina minutu bat geroago negarrez eta garrasika entzun zuen maistrak norbait joka ari balitzaio bezala. Maistrak, iritsi zenean, ez zuen inor ikusi Mariori ezer txarrik egiten. Denak ahozabalik zeuden begira, ze... Mariori esku bat falta zitzaion!

– Desagertu egin da! Ze txulia! Egin amarru hori berriro! –esan zuen Lolak.

Baina han ez zegoen amarrurik, eta Mario, hain haserre zegoenez, Lola jotzen saiatu zen. Orduan, geratzen zitzaion beste eskua ere desagertu egin zen.

Laurak ahalik azkarren eraman zuen Mario etxera eta fenomeno haren zergatia azaldu zion: jotzen ahalegintzeagatik desagertu zitzaizkiola eskuak! Mariori lotsa ematen zion bere egoera berriak eta eskuen falta disimulatzeke, beso luze-luzeak zituen jertse bat jantzi zuen, eta ez zuen ezertarako erantzuten. Gauzak horrela, osaba, osaba Perikorengana joan ziren, aztikeria desegin zezan eskatzera, Baina hark ez zekien hori egiten.

– Ez nuen pentsatzen aztikeria desegin beharrik izango nuenik. Ez dakit, Beharbada Lukas lehengusuak jakingo du nola egin hoei... Hura komerial! Lukas hori osaba Periko bera baino eroagoa zen, eta gainera oso urruti bizi zen. Maistrak lehenbailehen ekin beharra zeukan bidaia luze horri.

– Laguntza bila noa. Ahalik azkarren itzuliko naiz. Bitartean saia zaitetz esku horiek berreskuratzen, inorekin borrokatu gabe eta txintxo ibiliz.


Eta hala abiatu zen Laura ahalik eta azkarren, baina ez zuen ezer lortu; izan ere, gau hartan bertan esku hegalaria batzuek –segur aski Mariorenak– eraman zuten, hain urruti, ze hilabetak beharko zituen bueltan etortzeko.

Hala, Mario bakarrik geratu zen, sekula iristen ez zen Maistraren zain. Egunak eta asteak igaro zituen horrela, eta denbora horretan guztian ez zen inorekin liskartu egon zen, baina ez zituen bere eskuak berreskuratu. Beti bere beso luzeko jertse harekin, azkenean ohitu egin zen eta ez zen ohartu ere egiten eskuak falta zituenik. Ze beste umeak jotzeari utzi zionez, denak ere alaiago zebiltzan eta bera hobeto tratatzen zuten. Gainera, bera ere alaiago sentitzen zenez, beste umeei bakean ibiltzen laguntzen zien, eta norbait haserretzen ari zela ohartzen zenean, hurbildu eta besarkada bat ematen zion edo bere jostailuetakoren bat uzten zion. Hala, herriko ume maitatuena izatera iritsi zen.

Besarkada bakoitzarekin eta ekintza on bakoitzarekin, Marioren eskuak berriro hazten hasi ziren jertsearen besoen azpian, bera ohartu ere egin gabe. Azkenean, Laura itzuli zenean, hari eman zion besarkadarekin ohartu zen. Orduan erantzi ahal izan zuen jertsea, pozarren, berriro ere bere eskuak bazeuzkalako, eta are pozoago denek hainbeste maite zutelako. Hain zoriontsu egiten zuen denek zioten maitasunak ze, egun hartarik aurrera, bere maistraren harridurarako, goizero egiten zuen lehendabiziko lana, ukendu magikoarekin eskuak igurtzea izaten baitzen, sekula gehiago inoren kontra ez erabiltzeko.

Abestia "Nire eskuek elkarri begiratu baliote".

https://www.youtube.com/watch?v=hV_7aNLhYwM&ab_channel=VikyQui%C3%B1onez



Jokoa "Besarkada katea": Irakasleak edo ikasleren batek emango dio hasiera kateari, alboan daukana besarkatuz. Honek hurrengo besarkatuko du, eta horrela katea amaitu arte.

Poesia: Eskolara goaz

Asteko konpromisoa:

Aste honetan har ezazu ez borrokatzeko konpromisoa, borrokak ez ezik, eztabaidak ere saiheteko konpromisoa. Pentsa ezazu egunero, nahi gabe, asko eztabaidatzen duzun lagun bat, eta saiatu ASTE HONETAN BEREZIKI hori ez egiten.

Urtarrila 13/1

Aste honetan Iriniri buruz hitz egingo dugu.

Irini, greziar mitologian, Zeusen eta Temis-en alaba zen, Justiziaren jainkosa, ahulak eta justiziarik egiten ez zaienak defendatzeaz arduratzen zena. Gaur egun, bakea ez da soilik gerrarik eza; izan ere, benetako bakea lortzeko ezinbestekoak baitira, gizaki ororentzat lege justuak eta bizi-baldintza bidezkoak ere egotea.

Baliabideak:

Dinamika: "Justizia"

- Txandaka neskato eta mutiko taldeak lehiatuko diren jarduera bat sortuko dugu (Genero berdintasuna).
- Lehen txandan, taldeetako batek material edo baliabide askorekin jokatu du. Eta beste taldeak ezer gabe (gero aldatu egingo dira).
- Une bakoitzean nola sentitu diren baloratuko dugu; ea bidezkoa iruditu zaien jarduela.
- JUSTIZIA EPAILEAREN Jarduera entolatuko dugu ikasgelan. Bakearen lupa erabiliko dute ikasgelako edo jolastokiko bidegabekeriak salatzen.



Genially

- **Genially:** Bakea hainbat jarduerarekin (hauta ezazu ekintza egokia, azalpena sinbo-loak, abestia, puzleak, BAKE hitzaren letrak, BAKEaren errezeta, Memory...) <https://view.genial.ly/601501f3dafa320d8b910fdf/game-action-paz-educacion-infantil-2021>
- **Abestia:** "Un planeta de Paz" (Unai Quirós) (Planeta baketsu bat) https://www.youtube.com/watch?v=wkbyfa8QQtY&ab_channel=UnaiQuir%C3%B3s
- Galdera osatuko dugu, beren aurka disparatu behar dugun edo ez dugun gauzen zerrenda idatziz.

PLANETA BAKETSU BAT LORTZEKO...	
EZ DUGU DISPARATU BEHAR	DISPARATU BEHAR DUGU

Asteko konpromisoa:

Pentsa ezazu zer egin dezakezun zuk zeure etxean edo zeure ikasgelan bakea jartzeko, eta egizu. Lagunen batekin eztabaidatzera zoazenean, aurrena har ezazu arnasa hiru aldiz. Aitak zerbait egiteko eskatzen dizunean, egizu agindu dizun lehenbizikoan...

Urtarrila 20/1

Bakezaleak gara batzen garenean, atzera egiten ez dugunean, geure motxilatik pazientzia, maitasuna eta barreak ateratzen ditugunean. Zurekin kontatzen dugu bakea munduko bater guztietara eramateko, zeure ingurunetik hasita, ametsez beteriko motxila horrekin.

Baliabideak:

- **IPUINA** "Bakearen motxila" (Unai Quirós)
https://www.youtube.com/watch?v=VydpvxNmJjw&ab_channel=UnaiQuir%C3%B3s
- **Abestia** "La mochila de la paz" (Bakearen motxila)
https://www.youtube.com/watch?v=caTB-S7uKk8&ab_channel=UnaiQuir%C3%B3s
- **Margotu ezazu zeure bakearen motxila.** Idatzi edo marraztu itzazu bertan denon artean bizikidetza ona lortzeko lagungarri diren gauzak.



Asteko konpromisoa:

Pentsa ezazu zerez betea dagoen zure motxila, eta atera ezazu bertatik gustatzen ez zaizun edo tristura eta atsekabea ematen dizun zerbait eta sar ezazu alaitasuna, lasaitasuna eta barne bakea emango dizun zerbait.

Urtarrila 27/1

Aste honetan ospatzen dugu Indarkeriaren aurkako eta Bakearen aldeko Eskola Eguna. Beraz, gogoratu:

- Oso garrantzitsua da inguruan ditugun pertsonetik harmonian, tolerantzian eta errespetuan bizitzea.
- Izan zaitez adeitsua, eta saia zaitez besteak nola sentitzen diren ulertzen.
- Adieraz ezazu lasai sentitzen duzuna.
- Eskatu laguntza, zeuk konpondu ezin duzun arazoren bat duzunean.

- Errespeta itzazu besteak haien iritziekin bat ez bazatoz ere.
- Norbait biolentzia sufritzen dagoela ikusten duzunean, jo ezazu lagun diezaiokeen hel-duren batengana

Baliabideak:

- **Bideoa** argitzailea piktogramekin
https://www.youtube.com/watch?v=_otndo2ew3A&ab_channel=Mar%C3%ADaJes%C3%BAsFern%C3%A1ndez
- **Abestia** Paz (Improve Hezkuntza Musikala)
https://www.youtube.com/watch?v=kQYj07VOngo&ab_channel=ImproveEducaci%C3%B3nMusical
- **Esaldia** Mahatma Gandhi (Pertsonen eskubideen alde era baketsuan borrokatu zen gi-zona). **"EZ DAGO BIDERIK BAKERAKO. BAKEA DA BIDEA"**
- **Poesia:**



Asteko konpromisoa:

Ikasgelako kide guztien artean zerrenda bat egingo dugu, geure inguruan Bakea eriteko egin ditzakegun ekintzak aipatuz. Konpromisoa hartzen dugu "Bakerako Ekintza" horietako bat gutxienez betetzeko astean zehar.

6. Otsaila: asko daukagu esateko

Hileko motibazioa

Zaila da ezer esateko ez duten gazteak aurkitzea. Birtartekoak, hizkuntzak, teknologiak dira aldatzen dena. Gazteek presentzia iraunkorra dute mundu digitalean. Mota guztietako hizkuntzak erabiltzen dituzte komunikatzeko: hizkuntza grafikoak, bisualak, musikalak, keinuzkoak, estilistikoak. Esploratzeko eremu bat da, denak beren hazkundearen partaide senti daitezen. Eta egokitze garaia, elkar ulertzeko lehen urrats gisa.



Otsaila 3/2

Gure ingurura begiratzen dugu eta jende asko ikusten dugu... Mundu honetan bizi garen guztiok desberdinak gara, bakarrak gara, baina, hala ere, guztiok berdinak gara gauza batean, eskubide berberak izan behar ditugulako. Pertsona bakoitzak bere emozioak, kultura, hizkuntza, alegia, norberaren nortasuna osatzen duten balio batzuk ditu. Horregatik, pertsona bakoitza bakarra eta desberdina da. Berdin dio nola komunikatuko garen hizketan, zeinu-hizkuntzarekin, piktogramekin, itzultzaile batekin ordenagailu batean... Garrantzitsua denok elkartuta egotea da, eta behar dugun bakoitzean elkarri laguntzea.

Baliabideak

- **BIDEOA-IPUINA** "Bakarrak" (osorik)
<https://www.youtube.com/watch?v=usA6wuZjJeo>
- **IPUINA:** denok desberdinak gara (animaliak)
<https://www.youtube.com/watch?v=vOyOIRqTALY>

Asteko konpromisoa:

Aste honetan konpromisoa hartzen dugu:

- Besteen sentimenduak ulertzen saiatzeko, solidarioak izateko, geure gauzak besteekin partekatzeko.
- Adiskide onak izateko eta ezein adiskide bakarrik egotea eragozteko.
- Behar duten adiskideei laguntzeko, haien premietara egokituz.

Otsaila 10/2

Aste honetan "Esan hitz egin gabe" jokoa proposatzen dizuegu.

Joko honen helburua keinuen bidez komunikatzea da, hitzik gabeko hizkuntzaz, alegia, besteek uler dezaten hitzik esan gabe adierazi nahi duguna. Jarduera hau guztiz egokia da sinbolizaziorako, adierazpenerako, imitazio gaitasuna garatzeko, norbere buruari barre egiteko, lotsa galtzeko, etab.

Baliabideak:

Badira Internetetik zuzenean inprima daitezkeen txartelak, edo norberarenak ere egin daitezke. "Diga-lo" bat ere egin daiteke emozioen mimikarekin, edota gauza barregarriagoren bat ere bai..



Ondoko lotuneetan aurki ditzakezue mimika egiteko txartelen ereduak:

- <https://www.Jardueraesdeinfantilyprimaria.com/2020/10/02/divertido-juego-de-mimica-para-trabajar-en-el-aula/>
- <https://penitenciasyretos.blogspot.com/2017/06/tarjetas-imprimibles-para-jugar-la.html>

Asteko konpromisoa:

Munduan ibili zenean, Jesusek gaixo zeuden pertsonak sendatu zituen, goseak zeudenei jaten eman zien, eta bakarrik sentitzen zirenak kontsolatu zituen.

Jesusek gainera bere dizipuluei irakatsi zien besteei laguntzen. Esan zien janaria, ura eta arropak eman behar zitzaizkiela gauza horien premian zeuden pertsonen, eta bisitatu egin behar zituztela bakarrik zeudenei. Jesusek esan zien lagun hurkoaren alde egiten zutena beraren alde egin balute bezala zela.

Eta Jesusek irakatsi zigunari jarraituz, aste honetan konpromisoa hartzen dugu zerbait esan nahi digun lagun edo ikaskideari aditasunez entzungo diogula. Kontuan hartuta bakoitzak hitz egiteko bere era daukagula, batzuk gustagarriagoak, besteak ez hainbeste, konpromisoa hartzen dugu betiere entzuteko, eta ahal dugun neurrian laguntzeko, beti ikas dezakegulako zerbait inguruan ditugun pertsonengandik.

Otsaila 17/2

Entzun denok adi ze berriro gogorarazi behar dizuet denok desberdinak garela eta hori "zoragarria" da! Desberdintasun batzuk erraz ikusten dira, adibidez, altura, orrazkera, begien kolorea, etab. Beste batzuk, ordea, ez dira hain erraz igartzen, adibidez, gure jaki gogokoena, denok dauzkagun beldur edo abilezia berezi horiek...

Harrigarria bada ere, mundua ikusteko daukagun modua ere desberdina da. Forma jakin bat daukan irudi baten aurrean, gutako bakoitzak gauza desberdinak ikusiko ditu. Berdin dio marrazkia nola ikusten dugun, dena zuzen dago! Gure zelebrokek gainerakoenak ez bezala funtzionatzen du, eta hori primeran dago. Pentsa ezazue gure garuna ordenagailu boteretsu bat dela, eta horrek laguntzen digula han gauza bitxiak ulertzen.

Horregatik dauzkagu gaitasun desberdinak, sentimendu desberdinak; horregatik, estimulu berberaren aurrean era desberdinean erreakzionatzen dugu, eta komunikatzen garen moduan ere desberdinak gara. Zerebroa halako eran dago konektatua ze gutako bakoitzak bere erara sumatzen baititu egoerak, eta horrexek bihurtzen gaitu bakar eta errepikaezinak.



Baliabideak:

- Balentinaren historia, Asperger arazoa: <https://www.youtube.com/watch?v=07TEkc5xwbs>
- Nire anaia Luka: <https://www.youtube.com/watch?v=X4jqAGWWWhSE> (azpidazkiak ingelesez)

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, konpromisoa hartu behar dugu gauzak egiteko zailatasun gehixeago duten ikaskideei geure maitasuna erakusteko eta motibatzen laguntzeko. Hitz egitea kostatzen bazaie elkarrizketa bat hasteko trikimailu edo formulak irakatsiko dizkiegu. Esate baterako, galdera errazak eginez, adibidez ea haiekin jolasean ibil gaitezkeen edo zerbaitetan lagun diezaiekegun; marrazkiak ere egin ditzakegu, zerbait ulertzen laguntzeko.

Otsaila 24/2

NOLA MAITE GAITU JESUSEK: NI BEREZIA ETA BAKARRA NAIZ JAINKOARENTZAT.



Ikasgai honetan, hurrek ikusiko dute Jesusen begietan oso garrantzitsuak eta bereziak direla, Jainkoaren seme-alabak direlako.

Ebanjelio santua san Markosen arabera 10, 13-16

Beste batean, haurak eraman zizkioten Jesusi, uki zituzan; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen eta esan zien: «Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

Galderak:

1. Zure ustez, zergatik haserretu zen Jesus?
2. Jainkoaren Erreinua helduentzat bakarrik da ala mundu guztiarentzat?
3. Nola sentituko zinateke Jesusek besoetan hartu zuen haur haietako bat zeu bazina?
4. Badakizu Jesusek besoak zabalik dituela zuretzat?

Jarduera:

Orain, haientzat oso berezia den norbaitengan pentsatuko dute, eta pertsona horren marrazki bat egingo dute, eta Harentzat zergatik diren hain bereziak azalduko dute.

Baliabideak:

Ikasle bakoitzak orriak eta margoak eduki behar ditu bere mahaian.

Asteko konpromisoa:

Konpromisoa hartzen dugu marraztu ditugun pertsona horiei esateko oso bereziak direla guretzat, eta besarkada handi bana emango diegu.

Baldin haurren batek bere pertsona berezia partekatu nahi badu, bejondeiola.

7. Martxoa: Bidelagun izango gaituzu

Hileko motibazioa

Martxoa:

Garizumak eramango gaitu Jesusek guregana izan zuen maitasun keinu gorenera. Barnera begiratzeko berrogei egun dira, gure bihotza prestatzeko etortzeaz dagoenerako. Basamortuko egunak dira, baina baita bide horretan nahi ditugunei laguntzeko egunak ere. Hurbil ditugunez arduratzen, geure lagunentzako gidari eta erreferente izateko, geure lanak bertan behera uzteko prest egoteko egunak, gertu senti gaitzaten.

Martxoa 3/3: Kontatu nire denborarekin.

Aste honetan Garizuma hasiko da eta, beraz, datorren asteazkena hausterre eguna izango da. Hortaz, ongi etorria ematen diegu haur guztiei, bideoa ikusi eta entzunez. Labur-labur azalduko dizugu zer diren berrogei egun horiek, eta nolako garrantzia duen Pazkorako prestatzeak.



Garizuma-denboran, beti pentsatzen dugu egun horiek pasakorrak direla, egunez egun, orduz ordu... Baina, oraingoan, denbora beste ikuspuntu batetik planteatuko dugu. Denbora planteatzeko modu hori klimatikoa izango da, hau da, berrogei egun hauetan nolakoa izango da nire egoera? Horretarako, eguraldiaren hainbat irudi izango ditugu arbelean (hodeiak, eguzkia, ortzadarra, euria, etab.). Garizumako egun hauen aurrean izango dudana jarrera adieraziko du. Irudi hori ateratu, hartu eta nonbait itsatsiko dute (agendan, libururen baten azalean...), gogo aldarte hori gogoratzeko.

Baliabideak:

- **Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=-b5lw4gCiok>
- **Irudia:** Doc. 01 – Kontatu nire denborarekin.

Asteko konpromisoa:

Irudia sarritan erabiltzen edo ikusten duten lekuren batean erantsita edukitzea, jarrera hori bizirik mantentzeko garizuma guztian.

Martxoa 10/3 Kontatu nire oinekin.

Aste honetan, bestearen lekuan jartzen ikasteko dinamika bat garatuko dugu. Horretarako, beste baten lekuan jarriko gara, haren oinetakoekin ibiliko gara. Ikasleei oinetakoak beste lagun batenekin aldatzeko eskatuko diegu. Ondoren, zirkuitu bat osatu beharko dute, aurretiaz prestatu duguna, ikasgelan edo patioan zehar. Hainbat elementu edo kono erabil ditzakegu gure zirkuiturako, soka bat sigi-saga egiteko, kaxa bat jauzi egiteko, etab. Gure haurrentzako zirkuitu bat egitea da asmoa. Zirkuitu horren barruan interesgarria litzateke bi geltoki jartzea, haurrek beste baten lekuan nola jarri pentsatzen jarrai dezaten. Adibidez, honako hauek:

1. **Emozio txartelak:** Zenbait puntutan, emozio desberdinak adierazten dituzten txartelak jarriko ditugu (zoriona, tristura, haserrea, etab.). Haurrek txarteletako bat jasoko dute, emozio hori antzeztuko dute eta gogoeta egingo dute emozio hori sentí lezaketen egoera bati buruz.
2. **Eszenategien geltokia:** Geltoki bat jartzen da eszenategi batekin eta bertan haurrek pasadizo labur bat antzeztuko dute. Adibidez, triste dagoen lagun bat kontsolatzea, bi pert-



sonaren arteko gatazka konpontzea edo gogoeta egitea joko batetik kanpo utziko balute nola sentituko liratekeen, edo norbait beldurtuta ikusten badute zer egingo luketen.

Zirkuitua amaitutakoan, une bat izan hartuko dugu ikasitakoa finkatzeko eta hurrek sentitu dutena komentatzeko.

Baliabideak:

- **Irudia:** 02 Dok. – Emozio txartelak..
- **Zirkuituko materialak:** Soka, kaxak, konoak edo beste elementu batzuk gunen bat inguratzeko.

Asteko konpromisoa:

Astea motibatuko diegu hurrei eguneroko misioarekin, goizean zehar; horretarako, oinetakoak trukatu dituen ikaskideari galdetuko dio ea zer moduz dagoen, eta egunean zehar berorren lekuan jartzen saiatuko da.

Martxo 17/3: Kontatu nire begiekin.

Jarduera girotzeko, lehendabizi bideoa ikusiko dugu. Behar diren azalpenak eman ondoren, honako dinamika hau egingo dugu: 5 laguneko taldeak osatuko ditugu, ahalik eta eterogeneoenak. Ondoren, talde bakoitzeko lau kidek, elkarri eskua emanaz, zirkulu bat osatuko dute, taldeko bosgarren kidea zirkuluaren barruan dela. Orain pertsona horri begiratu behar diote besteek, baina ez azaletik bakarrik, bere barnea aztertzen saiatuz baizik, beragandik zer gauza gustatzen zaizkien pentsatuz, eta berari jakinaraziko diote banaka.

Hurrengo egunean jarduera bera egingo dugu, taldeak mantenduz, baina zirkuluaren barruko kidea aldatuz. Eguneroko errepikatuko dugu, taldeko bost kideak zirkuluaren barrutik pasatzen diren arte.

Baliabideak:

- **IPUINA** "Daniel eta hitz magikoak" <https://www.youtube.com/watch?v=B03QsVxgN2Y>

Asteko konpromisoa:

Gure etxean ere begiratuko dugu. Gure familiako kide bakoitzaren barruari erreparatuko diogu. Egutero, gure familiako gutxienez pertsona bati ikusi diogun gauza on hori esaten saiatuko gara. Hala, gure familiako zazpi laguni zazpi gauza on esatea lortuko dugu astean zehar.

Martxoa 24/3: Kontatu nire ahoarekin.

Irribarren bi irudietako bat proiektatuko dugu, edo biak. Horietan irribarre desberdinak ikusten dira. Denbora tarte bat hartuko dugu horiek aztertzeke eta zein gertatzen zaigun deigarriena edo zein den gehien gustatzen zaiguna erabakitzeke. Ondoren, hurrei beren irribarra marrazteko eskatuko diegu. Marrazten duten bitartean, pentsatu behar dute eguneroko zer gauza edo pertsona diren irribarra eragiten eta eguna alaitzen dietenak. Ondoren, ikaskide guztien artean komentatzen dute eta eskerrak ematen dizkiote Jainkoari irribarra eragiten dieten gauza edo pertsona horiengatik. Amaitzeko, bideoa jarriko diegu eta irribarreak egiteko eta eragiteko makinak izatea proposatuko diegu, bideoan agertzen den besarkatzeko makina izan ordez. Atera dituzten irribarreak kontatuko dituzte eta biharamunean ikasgelan egingo da zenbaketa.



Baliabideak:

- **Irudiak**
 - > Dok. 03 – Irribarreak 1
 - > Dok. 04 – Irribarreak 2
- **Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=OCZajn62HqE>
Orriak, lapitza eta margoak.

Asteko konpromisoa:

Irribarreak egiteko eta eragiteko makinak izatea egunean zehar. Biharamunean bakoitzak atera dituen irribarre guztien zenbaketa egingo da ikasgelan.

Martxoa 31/3: Kontatu nire eskuekin.

Aste honetan, geure eskuetan jarriko dugu arreta. Bideoak dakarkigun ipuina ikusi ondoren, gogoeta egingo dugu... Zer egin dezakegu geure eskuekin? Zer gustatzen zaigu egitea eskuekin? Gogoeta egingo dugu geure eskuekin egutero egiten ditugun gauza on guztietan: besarkadak ematen ditugu, laztanak egiten ditugu, laguntzeko eskuak jartzen ditugu, etab. Haur bakoitzak orri bat eta errotuladore bat eduki behar ditu. Bakoitzak bere eskuaren ingurua marraztuko du, orriaren gainean bermatuz.

Baliabideak:

- IPUINA:** https://www.youtube.com/watch?v=U_H3jvOclRU
Orriak eta errotuladoreak.

Asteko konpromisoa:

Denok elkar harturik, bost ekintza on pentsatuko ditugu astean zeha gauzatzeko. Bost ekintza astean zehar egunean bat eginez joateko, alegia, hatz bakoitzak asteko egun bat adierazten du. Geure eskuak marraztu ditugun orriak ikasgelan ipiniko ditugu erraz ikusteko lekuren batean, betiere gogoan edukitzeko. Asteko egunak igaroz doazen eta ekintza horiek gauzatzen ditugun heinean, hatzak margotuz joango gara, geure asmoa betetzen ari garela adierazteko.

8. Apirila: Aitorlu nahi zaitugu

Hileko motibazioa

Pazkoa bizi izan duenak ezin du isilean gorde. Sentitzen dena hain da bizia ze bihotza dar-darazten eta geure barrena dantzan jartzen baitigu. Nola gorde hori isilean? Gazteen bizit-zan ez dago gertaera garrantzitsurik kontaezin ahala dei eta mezuz lagundua ez denik, xe-hetasun xumeenak ere aztertuz. Ez dago alaitasunik ezkutuan gorde nahi denik. Eta Jesusen Pazkoa da alaitasunik handiena.

Apirila 1/4

Bihotzetik bizitzea da bizitzeko lekurik onena. Garrantzitsuak gara ontasuna eta maitasuna munduan zabaltzeko. Mundu horrek gure bihotzarekin kontaktzen du. Baina nola egin dezakegu hori? Urrezko arauari jarraituz: trata itzazu besteak haiek zu tratatzea nahiko zenukeen adeitasun eta ontasun berarekin.

Baliabideak:

- **Abestia:** "Con mi corazón" https://www.youtube.com/watch?v=sADjN6z4U8s&ab_channel=SuperSimpleEspa%C3%BIol-CancionesInfantilesYM%C3%AIs
- **IPUINA** "Halakoxea da nire bihotza" https://www.youtube.com/watch?v=SeQs_5kEyu-Y&ab_channel=AuladeElena
- **"Nire bihotzaren mapa":** Ipuinak dioen bezala, gure bihotzean gauza asko gertatzen dira. Bihotz batzuek txoko alaiak gordetzen dituzte, beste batzuek triste xamarrak, batzuetan beldurrak edo milaka abentura egoten dira, maite ditugun pertsonen ize-nak, leku zoragarriak, zaletasunak, bizi izandako uneak eta oroitzapenak. Bihotzean zer daramazun erakutsi dezazun animatzen zaitugu. Koloreztatu, marraztu, idatzi... Bihotz bakoitza bakarra da! Zoragarria! !
- Eta erdian? Nor bizi da hor barruan?
- Eta erdigunean? Nor bizi da hor barruan?



Asteko konpromisoa:

Aste honetan besteen bihotzez arduratuko gara. oso sendoak dira, baina aldi berean ahul-lak oinazearen aurrean. Horregatik, maitasunez tratatu behar dira, laztanak eta besarkadak eman.

Gainera gogoan eduki behar dugu gure bihotzean beti dagoela tartetxo bat gure Lagun Jesu-sentzat, tartetxo hori hazi egiten da eta oso handia egiten da besteak maite ditugun neu-rrian. Egizu zeure bihotza haz dadin!

Apirila 7/4

Errezatzeko unea da, Jainkoarekin egoteko eta guri digun Maitasuna aurkitzeko ordua. Jainkoak ematen digun zoriona partekatzeko garaia da. Errezatzean, askotan, ez gara bakarrik sentitzen, gure lagun Jesus ondoan daukagulako. Gainera, Otoitzak indarra ematen digu zaila dena egiteko, baita beste batzuei laguntzeko ere. Horregatik esaten diogu gaur: Jesus, konta ezazu nire Otoitzarekin!

Baliabideak:

- **Abestia:** "Orar es hablar con Dios" (Ayi y sus amigos) https://www.youtube.com/watch?v=E3A4mReioQ4&ab_channel=AYI
- **Bideoa** "Otoitzaren eskua". Ikus dezakegu bideoa bere azalpenarekin eta otoitzen bat errezatu, adibidez, ikasgelako kideekin, otoitzaren zati bakoitzean parte har dezaten animatuz. https://www.youtube.com/watch?app=desktop&v=cGwmUCI_fbU&ab_channel=MAIRAFERMIN
- **Irudia:** Inprima dezakegu kopia bat eta ikasgelako leku ageriren batean eseki, otoitzaren zatiak ikasteko eta astean zehar momentuten batean gogoratzeko.



- **"Neure otoitzak Jainkoarengana hurbiltzen nau":** Margotu esku hau, eta eraman etxera, zure familiari erakusteko zeinen komunikazio tresna zoragarria daukagun Jesus lagun handiarengandik hurbil egoteko.



Asteko konpromisoa:

Aste honetan, goizean esnatzean, Otoitz txiki batekin hasiko dugu eguna, "Egun on, Jesus!" esango diogu, eta Jesusez gogoratuko gara gauen lotarakoan ere, eta eskerrak emango dizkiogu egunean bizi izan dugun zerbaitengatik (une bereziren bat, pertsona baten izena, etab.) eta "Gau on, Jesus" esanez agurtuko dugu.

Apirila 14/4


Aste Santua Kristok Lurrean eman zituen azken egunak gogorarazten dituen denbora liturgikoa da: pasioa, heriotza eta berpizkundea; alegia, Jesus Salbatzaile aldarrikatua Jerusalemara iristen denetik, epaitua, gurutziltzatua eta hobiratu izan ondoren, berpiztuko den arte. Aste honetan, Jesusek bizi izan zuen guztia gogoratuko dugu.

Baliabideak:

- **Bideoa:** Astea Santuari buruz https://www.youtube.com/watch?v=DQog37S04qA&ab_channel=MercedesEdith
- **Abestia** "El amor de Jesús" (Jesusen maitasuna) https://www.youtube.com/watch?v=U2RMD3ujuwQ&ab_channel=AdventistasSudam%C3%A9rica
- **Koloreztatzeko marrazkia:** Hemen daukazu Jesusen lagunak. Zeu ere gonbidatua zaude afarira. Marraztu zeure burua egon nahi zenukeen lekuan eta kolorezta ezazu.



- Errepasa itzazu Aste Santuko egun garrantzitsuenak eta tolestu kandelak lerrotik.



Asteko konpromisoa:

Aste Santuko egun hauetan, saia zaitez familiarekin eta lagunekin egoten. Gogoratu Jesus gure artean nola bizi izan zen. Hark bere bizia eman zuen gugatik, lagunengatik. Nolako maitasun adierazpena!

Zer maitasun jestu egin ditzakezu zuk egun hauetan?

Apirila 21/4

Egun on! Pazko Zoriontsua! Badakizue zergatik esaten dudan hau? Garai berri batean gaude. Aste Santuarekin amaitu zen garizuma, eta Jesusek gurekin topo egin eta bizi berria dakarkigu. Bizitza berri bat Jesus une oeo geurekin izango duguneko, maitatuz, zainduz, babestuz.

Baliabideak:

Ebanjelio santua San Joanen arabera 20, 19-22:

"Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei». Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Har ezazue Espiritu Santua"

Abestia Resurrección Valivan:

https://www.youtube.com/watch?v=_dO2Eg8ELjE

Marraskia esus Berpiztua inprimatzeko edo proiektatzeko. Gogoeta:

- Zer esan diezaiokegu Jesusi Pazko honetan?
- Zer eska diezaiokegu?
- Zer eskertu diezaiokegu?


Abestia Chispas de luz"

https://www.youtube.com/watch?v=tOJnV-qwSKk&ab_channel=Ad-ventistasSudam%C3%A9rica

Txinparta distiratsu izan zaitezen eta jestu apalekin besteak argi ditazun animatzen zaitugu.

Asteko konpromisoa:

Gaur festan gaude, gure lagun Jesus berpiztu delako eta ondoan dauka-gulako. Jai guztietan daude globoak, eta hemen ere ezin dira falta. Haur guztiei koloretako eta aurpegi irribarretsuko globo bana emango diegu. Puztean, Berpizkundeko alaitasunaren irribarrea ezagutuko dute. Musika jarri eta globoekin jolasean ibil gaitezke, edota etxera eraman ditzakete dinamika hau familian egiteko.



Apirila 28/4

Egunero jasotzen ditugu albisteak, batzuetan onak eta beste batzuetan txarrak. Seguru etxean ikusi duzuela gurasoek telebistan jartzen dituztela munduan gertatzen denaren berri ematen duten albisteak. Beste batzuetan, zure lagun, bizilagun edo familiartekoen berri jasotzen duzu. Batzuek tristura eragiten digute, hala nola lagun bat ikastetxez aldatu dela, ahizpak edo anaiak nota txarrak atera dituela edo auzoko andrea ospitalean gaixorik dagoela. Baina badira albiste onak ere, bihotzean sekulako poza ematen diguten horietakoak. Adibidez, haur baten jaiotza, urtebetetze bat, bidaia bat oporretan, etab. Gaur, munduari "POZAK ETA BERRI ONAK KONTATZEN" laguntzea proposatzen dizugu..

Baliabideak:



Dinamika: "Konta iezadazu zer bait ona".

Txandaka mintzatuz joango dira denak ere asteko albiste onen bat ozenki adieraziz. Kide bakoitzak bere berria adierazi duenean, denek batera esango dute: "ZE BERRI OPNA!"

Abestia "Las noticias son mariposas" (Albisteak tximeletak dira)

https://www.youtube.com/watch?v=ihG37c80xiE&ab_channel=CantaJuegoVEVO

Albiste onen ikasgelako horma irudia: ikasle bakoitzari tximeleta bat emango zaio, hormairudi gisa koloreztatu eta itsasteko. Astea igaro ahala berri alai gehiagorekin osatuz joan daiteke. Idazten dakien ikasleek esaldi bat jar dezakete tximeletaren he-goetan.



Asteko konpromisoa:

Jesusek iragarritako Berri Ona honetan datza: denok ahalegindu behar dugula mundua maitasun, justizia, bake eta barkamen gehiago dagoen lekua izan dadin. Horretarako, Jesusek berak lagunduko digu haren Hitza entzuten badugu eta haren ereduari jarraitzen badiogu. ZU BERRI ONA ZARA!

9. Maiatza: Hemen.gau

Hileko motibazioa

Norberarekin kontatzeko eskatzeak berekin dakar prestasun eta zerbitzu jarrera. Adibiderik onena Mariaren irudian daukagu. Jainkoaren deiari erantzuteko prest dago, erreserbarik gabe, eta, aldi berean, ekimena bere gain hartuz, Kanan egin zuen bezala. Ikasturtea amaitzen ari garen honetan, garrantzitsua da ekimena ez galtzea, zerbitzuko amantala jartzea eta geure abildadeak besteen zerbitzura jartzea, eta Mariak bezala esatea: "Kontatu nirekin".

Maiatza 1/5: GU BOK... ADISKIDE MINAK

Ikasturtea amaitzeaz dago, eta seguru lagun asko egin ditugula, edo, behintzat, hilabete hauetan bizipenak partekatu ditugula, elkarrekin istorio bat osatu dugula: "horregatik eskatzen dizut, lagun, kontatu dezazula nirekin; izan ere, beti ikusten ez duzun lagun horietako bat izan arren, NI BETI NAGO hemen, eta, beraz, kontatu nirekin MESEDEZ...". IMAJINATZEN DUZU HORI ESAN DIEZAIKEZULA MARIARI, gure zeruko amari, gure LAGUNIK ONENARI?

Inolako zalantzarik gabe badakigu kontatu dezakegula berarekin, betiere geure alboan daukagula, baina... eta gu? Zer deritzozu esaten badiogu?

Baliabideak:

Abestia "Cuenta conmigo" Kontatu nirekin "Luca" pelikulakoa (Bideoa pelikularen irudiekin eta letrarekin): <https://www.youtube.com/watch?v=WXOFF2AWHF8&t=11s>

Abestia "Cuenta conmigo" Kontatu nirekin "Luca" pelikulakoa (Bideoa letra bakarrik): <https://www.youtube.com/watch?v=kxOYJDbgnos>



Asteko konpromisoa:

"Basoan edo itsasoan, arriskuan baldin bazaude, Superman bihurtuko naiz, eta esku bateko hatzek kontatzeko balio badute, BIHOTZEKO LAGUNAK, kontatu nirekin, MESEDEZ...".

IMAJINATZEN DUZU HORI ESAN DIEZAIKEZULA MARIARI, gure zeruko amari, gure LAGUNIK ONENARI?

Inolako zalantzarik gabe badakigu kontatu dezakegula berarekin, betiere geure alboan daukagula, baina... eta gu? Zer deritzozu berari esaten badiogu?

- Hil honetan Ama Birjinari dedikaturiko tarte bat badugu, eskaintza txiki bat egin diezaiokegu (gure asteko konpromisoa): marraztu orri batean zeure eskua eta marraztu barruan bihotz bat, aste honetan Mariari eskainiko diozuna. Luza iezaiozu eskua, emaitza zeure bihotza eta esaitza zenbat maiter duzun.

Maiatza 5/5: ZATOZ ETA JARRAITU NIRI

(Lk 5, 1-11) Behin batean, Jesusek bere dizipuluetako bati esan zion: "Zatoz eta jarraitu niri". Mariak bezala, dizipulu horrek ere baietz esan zion Jainkoari... Bai esatea "Kontatu nirekin" esateko beste era bat da.

Baliabideak:

Ebanjelio santua san Lukasen arabera (Lk 5, 1-11): Behin batean, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren mezua entzuteko; Jesus Genesaret aintzira ertzean zegoen. Eta bi ontzi ikusi zituen ur bazterrean: arrantzaleak, ontzitik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen bietako batera, Simonenera, eta ontzia lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion; gero, eseri eta jendeari irakasten ziharduen ontzitik. Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion:

-Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzarako.

Simonek erantzun zion:

-Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sareak.

Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain pila harrapatu zutenez, sareak puskatzeko zorian zeuden. Beste ontziko lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; hurbildu ziren eta bi ontziak ia-ia hondoratzeraino bete zituzten. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetara erori zen Simon Pedro, esanez:

-Alde niregandik, Jauna, bekataria naiz eta!

Izan ere, zur eta lur zeuden eginiko arrantzagatik Simon eta beronekin zirenak, baita haren lankide ziren Santiago eta Joan Zebedeoren semeak ere. Baina Jesusek esan zion Simoni:

-Ez beldurtu, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara.

Ontziak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Mirarizko arrantza bideoa ere ikus dezakegu

Zer adierazi nahi izan zuen Jesusek gizonak eta emakumeak arrantzatuko zituztela esan zienean? Berak adierazi nahi izan ziena ez zen hitzez hitz gizonak eta emakumeak arrantzatuko zituztela. Esan nahi izan zuen, beren ontziekin arrantzan aritu ziren bezala, orain pertsonak ekarriko zituztela Jainkoaren Erreinura. Jesusek zu eta ni ere pertsona arrantzale izatea nahi du. Horrek esan nahi du ezagutzen ditugun pertsonei Jesusi buruz hitz egin behar diegula, hura ezagutu eta haren jarraitzaile bihurtzeko.



Asteko konpromisoa

Mariak baietz esan zuen, ikasleek baietz esan zuten, Jesusi baietz esan nahi diozu? Har ezazu aste honetan tartetxo bat, eta hitz egin ezazu noizean behin Jesusez eta beraren amaz ikusten duten berari eta amari buruz. Galdetu gurasoei, aitona amonei, senideei ea ezagutzen duten Jesusen mirarizko arrantzaren pasartea; eta ezagutzen ez badute konta iezaiezu zeuk. Anima zaitez eta esan baietz.

Maiatza 12/5: MARIAREN AHOTSA

Inoiz imajinatu duzu Mariaren ahotsa? Nolakoa uste duzu izango zela? Leuna, kantaria, animatua, sendoa, alaia... Nolakoa ote zen Jesusekin haserretzen zenean. Zure ustez, Jesusek umetan egiten ote zuen bihurrikeriarik?... Imajinatzen al duzu Maria Jesusi ipuin bat kontatzen? Ipuin bat kontatuko dizut...

Baliabideak:

IPUINA. "TXIRIBITA":

Hogei bat egun bakarrik irauten dute Nazareten, baina udaberriko sasoi pribilegiatu horretan, zelaiko lore guztiak badirudi lehian aritzen direla atentzioa emateko.

Larunbata zen. Paseatzera irten ziren; etxetik pare bat harrikadako bidea egin zuten, bazkaria jadanik amaitua zuten eta Mariak soberakin apur batzuk jaso ondoren, txiribita bat hartu zuen.

–Badakizu nola deitzen den lore hau?

–Txir-ri-bi-ta.

Hatzen artean harturik, haizegailu bat bezala birarazi zuen, Jesusen sudurraren punta ferekatuz. Haurra zer egin ez zekiela egon zen, irribarre ala doministikun.

– Lore hau Jainkoak asmatu zuen neure haurrak maite nauen ala ez jakiteko. Eta petalo zuri-zuriak erauzten hasi zen banaka txiribitaren urrezko bihotzetik.

–Maite nau... Ez nau maite... Maite nau... Ez nau maite...

Erantzuna baiezkoa zenean, Mariak, bere begi beltz ederrak zabal-zabal zituela irribarre egiten zuen. Erantzuna ezezkoa zenean, bekokia zimurtu eta ezpainak estutzen zituen tristurazko keinu bat eginez.

Jesusek amaren keinuak imitatzen zituen. Petaloak gutxituz zihoazen heinean, keinuak ere ilusionagarriagoak edo tragikoagoak ziren.

Haurrak eskuineko eskuan jasotzen zituen baiezko petaloak eta ezkerrekoan ezezkoak, oreka zein aldetara hautsiko ote zen larridurarekin.

–Maite nau... Ez nau maite... Maite nau!!!

Eta emaitzaren pozarekin, Mariak Jesus besarkatu zuen.

–Neure haurrak maite nau!

–Orain nik.

Jesusek ikusi zuen txiribitarik handiena erauzi eta berriro ekin zion jokoari keinu eta intonazio berberak imitatuz.

–Maite nau... Ez nau maite...

Ustekabea are atseginagoa izan zen. Bost petalo falta zirela ikusirik, argi baitzegoen emaitza berriz ere baiezkoa izango zela.

– Maite nau!!!

–Orain sekretua azalduko dizut: Jainkoak txiribita sortu zuenean, petalo kopuru bakoitia jarri zion, jokoa beti hasi den bezala amai dadin. Baiezko batekin hasten bazara, baiezko batekin amaituko duzu. Ezezkoarekin hasiz gero, tranpa egin behar da baiezkoarekin amaitzeko.

–Ama, nik asko maite zaitut, ezta?

–Bai...



Asteko konpromisoa:

- Aste honetan, txiribita bat marraztu edo margotuko dugu eta petalo bakoitzean gure zeruko ama Mariarentzat hitz politak marraztuko edo idatziko ditugu. Nahi baduzu, zeure amatxorentzat ere egin dezakezu bat. Ikasgelan Mariarentzat egiten duzuen lorea kaperara eraman eta sorpresa bate emango diozue.

Maiatza 19/5: MARCELINOREN BAIEZKOA

Aste honetan, maiatzaren 20an, Marcelino jaio zen eguna ospatzen dugu. Egun hartan inork ezin zezakeen imajinatu Marcelinok, mutiko jolasti hark, bere ardiak zaintzeaz arduratzen eta izebak Jesusi buruz kontatzen zizkion istorioak txundituta entzuten zituen mutiko hark egun batean, Maristak sortuko zituela. Urte asko igaro dira, baina Marcelinoren bizitza eta Jainkoari eman zion Baiezkoa ospatzen jarraitzen dugu.

Gainera, Marcelinok asko maite zuen Maria, eta zerbait behar zuen guztietan hari hitz egiten eta errezatzen zion laguntza eske. Egunero, Marcelinok bere gauzak kontatzen zizkion, eta horregatik deitzen zion Errekurtso Arrunta, egunero jotzen zuelako berarengana. Marcelinoren urtebetetze eguna elkarrekin ospatuko dugu.



Baliabideak:

- "Marcelinoren bizitza haurrentzako" Bideoa ikusiko dugu: La vida de Marcelino
- "Ven Marcelino" (Zatoz Marcelino) abestia ere jar dezakegu: Ven Marcelino

Asteko konpromisoa:

Orain, Marcelinoren bizitza zertxobait hobeto ezagutzen dugunez, aste honetan haren ereduari jarraitzen saiatuko gara eta, hark bezala, Mariarekin, gure Ama Onarekin, gehixeago hitz egiten. Eskain ieazkiozu Mariari zeure gogoetak. Jolasak eta jarduerak, kontatu zeure gauzak hobekixeago ezagutu zaitzan. Zer gustatuko litzaizuke Mariari kontatzea?

Maiatza 26/5: EGIN BEDI!



Maiatzeko azken Aste honetan, oso gogoan izango dugu Mariaren Baiezkoa, hura gabe, gure historia, Jesusen eta Marcelinoren lagun gisa, ezinezkoa izango zela. Hura gabe ez zatekeen ezer hasiko!! Egunean zenbat aldiz esaten dugu bai? Zenbat aldiz esan dezakegu bai, eta beste aldera begiratzen dugu? Maria bezain ausartak gara?

Baliabideak:

- Bideoa. Mariaren baiezkoa "Se armó el Belén" filmean: Mariaren baiezkoa
- Mariaren abestia entzungo dugu: "Hágase" (Egin bedi) Migueli.

Asteko konpromisoa:

Aste honetako eskaria geure baiezkoiei adi egotea da. Agian lagungarri gertatuko litzaiguke geure agendan oroigarri bat jartzea, edo kartel bat ikasgelan, letra handitan idatzita BAI dioena: ikaskideren bat hobeto trata dezakegu? Gehiago irakur dezakegu? Haserretu gabe josta gaitezke, eta adiskidetasunez portatu? Adi egon gaitezke eta geure inguruan behar duenari lagundu?

Egin behar duzun bakarra adi egotea da eta BAI! esatea.

10. Ekaina: munduko azken bazterreraino

Hileko motibazioa

Munduko elizbarruti guztiak sartzen ziren Marcelino Champagnaten planetan. Duela 200 urteko mundu hura gaur egun askoz txikiagoa da gaur egun, globalizazioari eta digitalizazioari esker. Mundu horretan jaio dira gure gazteak, eta inor baino hobeki moldatzen dira bertan. Gure misio horizonteak zabaltzeko garaia da, haiek bidera gaitzaten munduko bazter berrietara.

Ekaina 2/6:



Aste honetan, ikasturteko azken hilabetea hasiko dugu, hilabete garrantzitsua guretzat, maristentzat, 1840ko ekainaren 6an hil baitzen Marcelino Champagnat fundatzailea.

Gure fundatzailearen zenbait ideia gogoratuko ditugu, fundazioaren oinarriak leial gisa.

Baliabideak:

Bideoak:

- Zeu izango zara gaur Champagnat (gaztelaniaz) https://www.youtube.com/watch?v=DjiTTfeu_HU
- Túseráshoy Champagnat: <https://www.youtube.com/watch?v=X15U2t5654U&t=131s>
- Champagnat, Kairoi : <https://www.youtube.com/watch?v=cdnHvjCjp6k>

Margotzeko marrazkia: "Marcelino erta haurrak" edo "Marcelino eta Ama Ona"

Lehiaketa "Zenbat dakizu Marcelinori buruz?"

<https://view.genial.ly/5ed7a7f623f1c90d96099851/learning-experience-challenges-vida-de-marcelino>

Bioletaren bila <https://learningapps.org/watch?v=pw9v0duwn20>



San Marcelino Champagnat



Asteko konpromisoa:

Aste honetan , ekainak 6, san Marcelino Champagnaten festa ospatzen dugu. Zer egokiagorik horretarako abestea eta dantzari egitea baino?

Asteko konpromisoa: Ikasleek ikasgelan entzuten duten Abestia familiei erakustea eta deigarriena gertatzen zaienari buruzko marrazki bat egitea.

Ekaina 9/6

kasturte osoan pertsona askorekin KONTATU DUGU, maite gaituzten hainbat pertsona izan ditugu lagun. Aste honetan, bihotzez esango dugu "KONTATU NIREKIN" jaso dugun MAITA-SUN guztiagatik geure eskerrona adierazteko.

Baliabideak:

Abestiak:

Pon tu mano: <https://www.youtube.com/watch?v=fZgQU4loV8w>

IPUINA:

Eskerronaren balioa: <https://www.youtube.com/watch?v=y0QXo7pmcvE>

Asteko konpromisoa:

Aste honetan inguruan ditugun pertsonaia adi egongo gara. Geure eskuaren silueta bat marraztuko dugu eta bertan idatziko ditugu ikasturtean zehar lagun izan ditugun eta gutaz arduratu diren pertsonen izenak, geure esker ona adierazteko.



Ekaina 16/6

Ikasturteko azken astea. Nola gaude? Egon gaitezke nekatuta, pozik, sutan, urduri...

Aste honetan zeuon motxilan behar duzuen guztia sartzea proposatzen dizuegu, uda honetan ere ikasturtean izan duen ilusio berarekin jarrai dezazuen.

Zer sartuko dugu?

Baliabideak:

Marrazkiak koloreztatu aldi bakoitzean lantzen den objektuaren arabera.



Asteko konpromisoa:

Oroitzapen politekin beteko dugu geure motxila (egun bakoitzean objektu batean zentra gaitezke):

- Emotikono zoriontsuaren aurpegia: oso nekaturik eta triste egon ginen une horietan pentsatuko dugu eta nola gurasoek, ikaskideek, lagunak edo irakasleek animatu eta alaitu gintuzten.
- Oinetakoak: beren laguntza eskaintzera korrika etorri zaizkigun pertsonengan pentsatuko dugu.
- Brujula edo mapa: bide zuzenetik saihestu garen uneak eta norbaitek geure arazoa bideratzen lagundu digunekoak gogoratuko ditugu.
- Bonbilla: beldur izan garen aldiengatik eta...